

KALITATE- ETA INGURUMEN-POLITIKA

Athletic Club Fundazioa 2002an sortu zen. Bere helburu nagusia Athletic Club erakundearen balioak garatzea da, Bizkaiko gizartea hobetu eta iraunkorrago bihurtzeko helburuarekin kultur, kirol, ingurumen eta gizarte arloko ekimenak sustatuz. Horretarako, Fundazioak askotariko jarduera eta programak antolatzen ditu denboraldi bakoitzean, bai bere aldetik, baita beste eragile eta gizarte-erakundeekin elkarlanean ere, herri mailan zein nazioartean. Fundazioaren jarduera-programa 4 arlo nagusitan banatzen da:

- 1) Lehena gizarte eremua da. Gure proiektuen helburua gizarte-bazterkeria arriskuan dauden pertsona kolektiboen bizi-kalitatea hobetzea da.**
- 2) Bigarren ekintza-eremua kultura da. Gure ustez, kultura eta hezkuntza lotuta daude gizartearen garapenean, eta errealitatearen gaineko jarrera kritikoa eta hausnarketarako gaitasuna izatea ere oso garrantzitsua da, hobetu ahal izateko.**
- 3) Hirugarren eremua ingurumenaren babesa sustatzeko ekintzen garapenean datza. Gainera, garapen iraunkorraren inguruan gizarte osoa sentsibilizatu behar dugu.**
- 4) Laugarren eremua futbolarren lehiakortasun dimentsiotik kanpo eraikitako proiektuak dira, jolastuz ondo pasatu eta pertsona gisa garatzeko tresna gisa. Arlo horren baitan sustatzen da Athletic Club erakundearen irudia, pertsonen arteko topaketarako eremu gisa.**



FUNDAZIOA

KALITATE- ETA INGURUMEN-POLITIKA

Fundazioaren proiektu guztiak Fundazioak berak eta Athletic Clubek bideratutako baliabideetan oinarritzen dira. Hala ere, bestelako eragileen lankidetzak, hala nola gizarte, kultur, kirol eta enpresa arlokoak, Fundazioaren proiektua sendotzen laguntzen du. Hori dela eta, eragile horiekin eta inguruko erakundeekin aliantza sare bat lantzeko xedea dugu.

Zentzu horretan, Fundazioaren Zuzendaritzaren ustez, Kalitatea Kudeatzeko Sistema tresna egokia da erakundearen izenean sustatu, garatu eta kudeatutako jarduerari eusteko; batez ere, honako konpromiso eta oinarriari dagokienez:

*** Fundazioak garatutako jardueren kalitatea eta horien etengabeko hobekuntza Erakundeak kide guztien ardura da.**

*** Ingurumena babestea, hau da, kutsadura eta beste edozein eragin kaltegarri prebenitzea, eta erakundeak burutzen dituen jarduera proiektuen arabera ekimenak sustatzea, betiere, gure ingurumen-jarduera hobetzeko asmoz.**

*** Gure jarduerak egokiak izateko, ezinbestekoa da erakundearekin zerikusia duten estamentu guztiak gustura egotea: Bazkideak, kolaboratzaileak, aldeko pertsonak, langileak, hornitzaileak eta abar. Hori kontuan izanik, gure betebeharrak eta beren beharrizanak eta nahiak betetzeko lan egin behar dugu.**



FUNDAZIOA

KALITATE- ETA INGURUMEN-POLITIKA

*** Gure kolaboratzaile, eragile eta hornitzaileen artean irizpide sozialak eta ingurumen arloko irizpideak zabaltzea, batez ere Fundazioari ematen dioten zerbitzuari dagokionez, Klubaren balioen arabera.**

*** Fundazioak bere gain hartutako arau horiek guztiak betetzeko konpromiso argia dugu, bereziki gizarte izaera duten horiek, gure inguruan erreferente izaten jarraitzeko xedez.**

Printzipio horiek ondo aplikatu ahal izateko, guztiz beharrezkoa da Zuzendaritzaren babesa, baina baita langile, hornitzaile, kolaboratzaile eta klubaren masa soziala osatzen duten pertsona guztien elkartasuna ere.



*Juan Carlos Ercoreca - Fundazioko Presidentea
Bilbo, 2020ko urtarrilaren 20a*



FUNDAZIOA